

**LIZENTZIEI ETA BAIMENEI BURUZKO OHARRA**

Euskal Autonomia Erkidegoan destinoa duten Justizia Administrazioako funtzionarioen lan-presentziak, lizentziak eta baimenak arautzen dituen Justizia Administrazioako zuzendariaren 2021eko ekainaren 14ko Ebazpenaren arabera, oporrak, norberaren gauzetarako egunak eta urteko lanaldiaren gaineko soberako orduak urte naturalaren barruan hartu beharko dira, hau da, sortzen diren urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

Hala ere, aurtengo egoera zehatza kontuan hartuta, eta ebazpen hori urtearen erdialdean argitaratu denez, 2021eko oporrak eta baimenak 2022ko urtarrilaren 15era arte hartu ahal izango dira, salbuespen gisa.